

Kostu finkoak alokairua eta gure soldatak dira, eta kostu aldagarriak hilabetero erabiliko ditugun materialen prezioak izango dira.

KOSTU FINKOAK	
Alokairua (ura eta elektrizitatea alokairuaren barne egongo da)	750€
KOSTU ALDAGARRIAK	
Gure soldatak	Gutxienez, guztira $1125 / 4 = 281,25€$
Material desberdinak (kartulinak, errotulkiak...)	200 euro jarriko ditugu zerbait erosi behar badugu.
Jostailuak	Birziklatuak, etxeko materialak, familiak ekartzen dizkiguten materialak... 0€
Altzariak	Gure etxeetatik, birziklatuak...
Janari ezberdinak (kultura ezberdinetakoak)	Umeen familietatik edo 50 euro hilero gutxi gora behera.

Gure soldatak aldagarriak izango dira, ez dagoelako zehaztuta haurrak hilero zenbat aldiz etorriko diren, horregatik, ezin dugu zehaztu zenbat diru irabaziko dugun. Asteazken zehar, 20 ordu egingo ditugu, hau da, 4 ordu egunero, eta asteburuetan berriz, 8 ordu; 4 ordu goizeetan eta beste 4 ordu arratsaldeetan. Asteburu guztietan 4 langile egongo gara eta astean zehar, berriz, bi langile soilik.

Guztira, hasteko, 950 euroko sarrera jarriko dugu, bai alokairua ordaintzeko, bai material ezberdinak erosteko. Denbora pasa ahala, kostu aldagarriak ordainduko ditugu Kultutekan lortzen dugun diruarekin.

Gure kostuak murrizteko, lokal merkeak eta fidagarriak bilatuko ditugu (aurretik jarri dugun lokala adibidez) eta hori ondo joaten bada horrekin jarraituko dugu. Gainera bigarren eskuko materialak ekarriko ditugu, gure etxeetatik, ezagun baten baten etxeetatik etab. (haurren jostailuak, mahi txikiak, haurrentzat material desberdinak...).

Bigarren eskuko material guzti hau lortu ahal izateko, haurrak dituzten familia ezagunei eskatuko dizkiegu (erabiliko ez dituzten jostailu eta kultutekarako material desberdinak). Era berean, prest gaude gure kultutekarako hainbat familiak ematen diguten materiala onartzeko, erabiltzen ez dituztelako edota bota egingo dutelako. Horrela, egoera onean dauden materialak erabiliko ditugu, eta ez dira zakarrontzira joango. Ahalik eta erabilera onena emango diogu lortzen dugun material guztiari.